

Liburu aurkezpena

Izena: *Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*

Egilea: Mikel Zalbide euskaltzaina, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuaren burua.

Gaia: Euskaltzaindiaren XI. Jagon Jardunaldietako txostena liburu-formatoan argitaratzea

1.- XI. Jagon Jardunaldiak egin zituen Euskaltzaindiak 2007ko azaroan. Aztergai jakina aukeratu zuen: Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legeak 25 urte betetzen zituenez, legeak mende-laurdenean izandako bilakaeraz gogoeta-saioa egitea. Alde askotatik jorratu zen gaia: administrazioa, kulturgintza, komunikabideak... Hezkuntza alorreko bilakaeraz balioespen tekniko egitea eskatu zitzaidan: hau da orduko emaitza. Euskaltzaindiak bere aldizkari ofizialean argitara zituen ekarpen guztiak. Hezkuntza alorreko txosten luzea irakurri ondoan, liburu formatua interesgarria gerta zitekeela uste izan zuen zenbait adituk. Euskaltzaindiak, iritzi haiek kontuan hartuz, orduko txosten hura liburu moduan argitaratzea erabaki du.

2.- Txosten-liburua, hasi eta buka, *perspektiba soziolinguistikotik idatzia* dago. Beste hainbat alor ere kontuan hartzen ditu ordea: jurilinguistika, hezkuntza elebiduna, demolinguistika eta, ororen gainetik, euskara indarberritzeko saioan hezkuntza alorreko aplikazio-neurrien ekarpena. Terminologia teknikoan “acquisiton planning” edo “hizkuntza eskuratzeko plangintza”ren atal operatiboei eskaini zaie, horregatik, liburuaren orrialde-kopuru zabalena.

3.- Aparteko lekua eskaini zaie, beti, hizkuntza-soziologiaren alorreko gai nagusiei: bai legea onartu aurreko *gizarte-giroari* eta bai handik mende laurdenera gailentzen ari zenari. Hori egiterakoan oso kontuan izan dira, batetik, erabilera kontuak. Berariaz aztertu dira, bestetik, EAEko hiritarren iritzi-jarrerak. Aparteko lekua du txostenean, orobat, autonomi aurreko epealdiak baizik. Azterketa nagusia, halere, EENL legea 1982an onartu zenetik hona hezkuntza-munduak izandako transformazioan zentratzen da.

4.- A, B eta D ereduak ordutik hona izandako *bilakaera diferentziala* aski era xehakatuan aztertzen da bertan: aparteko analisisa eskaini zaie

horregatik, hainbat kasutan, ikastetxe publikoei eta pribatuei, Haur Hezkuntzari, LMHri eta Bigarren Hezkuntzari, edota lurraldez lurraldeko garapen bereziari. Ereduen garapen horrek izan duen joera nagusia, A jaistekoa eta D haztekoa, oso nabarmen ageri da analisi horietan.

5.- **Oinarrizko lan-prozedura teknikoak** zehazki lantzen dira bertan: aparteko lekua dute, horretan, hizkuntzazko gaitasun-agirien jectioak (EGAk, Hizkuntza Eskakizunek,..) irakasleen hizkuntza-prestaerak (IRALEk), ikasmaterialgintza bideratzeak (EIMAk) eta erabilera indartzeko eskola-ekimenak (NOLEGAk eta ULIBARRIk). Programa horiek mende-laurden batez nola eratu diren, zer garapen izan duten eta, alorka, zernolako emaitzak lortu izan diren aztertzen da bereziki.

6.- Emaitzen kontua, normala denez, berariaz landu zen: **nola zeuden kontuak 2007-08an, legea onartu eta handik 25 urtera?** Hiru ereduak hartu duten hedadura, irakasleen hizkuntza-osaera, bi hizkuntza ofizialen ezaguera-maila eta euskararen eskola-giroko erabilera: horiek izan ziren lau ebaluazio-puntu nagusiak. Aparteko aipamena jaso zuten, azkenik, bai analisi intralinguistikoak (euskara batuaren eta kasuan kasuko euskalkien trataerak eskola-munduan) eta bai Euskal Herri osoko harreman interinstituzionalak.

7.- Gizarte-berrikuntzak 1982ko legeari dakarzkion **erronka berrien azalpen xumea** eskaintzen da, bide batez, ebaluazio-saioan. EAEko irakas-sistemaren berrikuntza-iturri gertatzen ari den hainbat, transformazio lantzen da bertan, gaingiroki: bilakaera demografikoa (haur-jaiotzen erabateko jaitsiera eta, berrikitan, gazte euskaldunen emigrazioa zein atzerritarren immigrazioa), bilakaera ekonoteknikoa eta lurralde-antolamenduzkoa, modernizazio soziokulturala eta abar. Eragin bizia dute horiek guztiek, ezinbestean legeari 1982an atxikitako helburu-marko orokorrean.

8.- **Orain arte egindakoaren** balioespen-saioari aparteko kapitulua eskaintzen dio txostenak. Ondo egin al dira gauzak eskola-munduan? Betetzen al da legea? Zuzen aplikatzen al da? Nolako hitzunik eta nolako idazleak ari gara sortzen? Gizartearen eskutik al doa eskola? Zertan ez da asmatu? Irakasle berrien prestaera, burutu gabe; giza baliabideen epe ertain eta luzerako planifikazioa, ahul; curriculumaren euskal dimentsioa, landu-arin; euskara ikasteko metodologia, atentzio gehiagoren premian, eta ganorazko euskal girorik gabe, etorri oneko hitzunik ez.

9.- **Zertan asmatu da?** Euskarak “bere lekua” topatu du eskola-munduan, epe laburrean; haur euskaldunak alfabetatu egiten ditu eskolak, eta elebidun osatu bihurtzen; murgiltze-bidea funtzionatzen ari da hainbatean; haurreskolen eta haurtzaindegien alorrean aurrera egin da. euskarazko irakaskuntza ez da bereziki garestia, eta eskolan egin den lana, euskalgintza osoaren mesedegarri

10.- **Azken gogoeta-saioaz** amaitzen da txostena: euskara ez doa, oro har, berehala galtzera; elebitasuna dugu, orain eta hemen, euskaldunon bizi-aukera bakarra; euskarak “bere lekua” behar du ordea, galduko ez bada (edozein elebitasun-ereduk ez du balio); perspektiba horretan txertatu behar da, hortaz, eskolako jarduna; legearen baitan gehiegizko konfidantza jartzeko arriskua dago, orduan zegoen bezala, eta ofizialtasunaren kontzeptua argitasun eske dago.

Bilbon, 2011ko otsailaren 25ean

Mikel Zalbide